LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK
alkate-udal burua
IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN
zinegotziak
JONE ZUBELDIA ALTUNA
ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA
IRAITZ OLAETXEA BALERDI
SABINO SAN SEBASTIAN MURUA
IDAZKARIA
ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2022ko maiatzaren 30an, arratsaldeko 19:00etan, eta Udaleko alkate udalburua, Iñaki Azpiroz Beldarrain izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIAK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

2022/42 Dekretua	2022/46 Dekretua
2022/52 Dekretua	2022/64 Dekretua
2022/65 Dekretua	2022/66 Dekretua
2022/68 Dekretua	2022/70 Dekretua
2022/73 Dekretua	2022/77 Dekretua
2022/79 Dekretua	2022/81 Dekretua
2022/83 Dekretua	2022/84 Dekretua

2022/92 Dekretua	2022/94 Dekretua
2022/98 Dekretua	2022/101 Dekretua
2022/102 Dekretua	2022/104 Dekretua
2022/105 Dekretua	

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

HIRUGARRENA.- LIZARTZAKO OSTATUA USTIATZEKO, KUDEATZEKO ETA MANTENTZEKO ADMINISTRAZIO-KONTRATU BEREZIA ARAUTUKO DUTEN ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA

Lizartzako Ostatuaren Kontzesio Administratiboaren Lehiaketako baldintza erregulatzaileen pleguari hasierako onarpena ematea.

Baldintza Pleguak zortzi egun naturaletan jendearen informazioarako agerian jarrita edukitzea, interesatuek hauek aztertu eta egoki irizten dituzten alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Informazio publikoko epealdian alegaziorik aurkezten ez bada, baldintza pleguak behin betiko onartutzat jotzea.

Aldi berean, lizitazioa iragartzea, hau atzeratu egingo delarik baldin eta Baldintza Pleguaren aurka alegazioak aurkezten badira.

LIZARTZAKO OSTATUA USTIATZEKO, KUDEATZEKO ETA MANTENTZEKO ADMINISTRAZIO-KONTRATU BEREZIA ARAUTUKO DUTEN ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA EDO PLEGUA

1. ART.- KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honen xedea da Lizartzako Udalaren jabetzakoa den Ostatuan taberna, jatetxea, eta biltegia, kudeatzeko eta instalakuntzak mantentzeko kontratazioa egitea, beti ere, zerbitzuak eskaintzerakoan bertako produktuak erabiliz. Halaber esleipendunaren esku jarriko da Ostatuaren kanpoaldean dagoen guneko terraza ere.

2. ART.- KONTRATUAREN IZAERA

Agiri honen xede den kontratua administrazio-kontratu berezia da, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 159 artikuluak ezartzen duenaren arabera. Definitutako kontratua administrazio-kontratu berezi gisa kalifikatzen da.

Era horretako kontratuak inola ere ez du esan nahi la-harremanik dagoenik Lizartzako Udalaren eta kontratistaren artean; beraz, inola ere ez dira aplikatzekoak izango lan-arloko zuzenbidearen xedapenak.

Kontratu hau administrazio-kontratua da, eta Agiri honetan ezarritakoak arautuko ditu kontratuaren prestaketa, esleipena, ondoreak eta azkentzea; Agirian aurreikusten ez denerako, berriz, honakoak aplikatuko dira: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen azaroaren 8ko 9/2017 Legea eta gainera, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak ere aplikatuko dira, eta, horiek ezean, zuzenbide pribatukoak.

Kontratuaz eta Administrazio-Klausula Zehatzen Agiri honetaz gain, kontratu izaera dauka Ondasunen Inbentarioak; inbentario horretan xehatuta jasotzen dira kontratistari entregatzen zaizkion ondasunak.

Kontraesanik balego Administrazio-Klasulua Zehatzen Agiri honen eta espedienteari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoaren artean, agiri honetan xedatutakoa gailenduko da.

3. ART.- ESKUDUN JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioak izango du eskumena kontratu honetako aldeen artean sor daitezkeen desadostasunak ebazteko, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legean xedatutakoaren arabera.

4. ART.- HAUTAKETA – ETA ESLEIPEN – PROZEDURA

Kontratua prozedura ireki, tramitazio arrunta eta lehiaketa bidez esleituko da; interesa daukan pertsona natural edo enpresaburu orok aurkez dezake proposamena, eta ezingo dira negoziatu kontratuaren baldintzak lizitatzaileekin, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legeak dioenari jarraiki.

Proposamenak baloratzeko eta eskaintzarik onuragarriena zein den zehazteko, Plegu honetako eta kontratuaren xedeari zuzenean dagozkion irizpideak hartuko dira kontuan, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak eta Plegu honek dioenari jarraiki.

5. ART.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Behin behineko adjudikazioa egiten denetik URTE BATEKO iraupena izango du, urtero luzatu ahal izango delarik BOST urteko mugarekin, edozein aldek hilabete aurretik ez badio besteari kontratua bertan behera uzteko bere asmoa jakinarazten.

6. ART.- KANONA

Esleipendunak kanon bezala, hilabeteko BERROGEITA HAMAR EURO (50 €) kanona izango du gehi BEZa. Kanonaren ordainketa hilabete bakoitzeko lehenbiziko 10 egunetan egin beharko da.

7. ART.- BEHIN BEHINEKO BERMEA

Parte hartzaileek ez dute behin behineko bermerik aurkeztu beharko.

8. ART.- KONTRATUA BETETZEA

Kontratua gauzatzeak dakartzan arriskuak kontratistaren kontura izango dira.

Halaber, Kontratuen Legea eta gainontzeko legedi aplikagarria bete beharko da (laborala, fiskala …)

9. ART.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Esleipendunak ondorengo betebeharrak izango ditu:

9.1.- Jendearen aurrean lana egingo duen pertsonalaren aldetik euskararen ezagutza eta erabilera izatea ezinbestekoa da.

9.2.- Udalak edo udalarekin akordioa duten elkarteen ekintzak antolatzeko erraztasunak jarri beharko ditu.

9.3.- Hondakinak. Zaborra sailkatzea derrigorrezkoa izango da (papera eta kartoia, ontzi arinak, beira, organikoa, olioa, …). Ostatuari dagokion konposta edukiontzia, herri baratzetako gunean kokatua dago.

9.4.- Taberna, jatetxe, biltegi eta terrazaren garbiketa eta mantenuaren ardura izango du esleipendunak, udalak honi dagokionez ezartzen dituen arauak betez.

9.5.- Establezimendu publikoetarako indarrean dagoen elikagaiei buruzko osasun arauak bete beharko ditu.

9.6.- Ostatuko ontzien mantenu eta ordezkatzea esleipendunaren kontura izango dira.

9.7.- Altzari eta gailuei dagokien mantenua esleipendunaren kontura izango da. Hauen ordezkatzea Lizartzako Udalaren ardura izango da beti ere esleipendunari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik bada.

9.8.- Irekitze ordutegi gutxienekoa hau izango da:

a) Astelehenetik ostegunera: 10:00etatik 21:00etara

b) Ostirala, asteburuan eta jai egunetan: 10:00etatik 00:00etara

c) Egun bereziak: festak, hileta edo zerbait berezia dagoenean irekita egoteko beharra.

d) Astelehenetik asteaskenera egun batez asteko atseden jaia hartu ahal izango da Udalarekin adostuta.

e) Jai eguna egun berezia denean, asteko beste egun batez ordezkatu ahal izango da.

9.9.- Oporrak: Abuztuko lehen 3 astetan Ostatua itxi ahal izango da.

9.10.- Eskolako jangelaren hornidura: eskaera izaten bada, Udala, Eskola eta Esleipendunaren artean plangintza landu eta adostu beharko da zerbitzua behar den bezala eskaintzeko.

9.11.- Terraza kokatuko den gunea, Askatasunaren Plaza, 5-7-9 komunitateko gunea dela kontuan harturik, itsatsitako planoak adierazten duen kokapena errespetatuko da. Aldaketarik nahi izan ezkero, udal ordezkariekin adostu beharko da.

10.- ART.- KONTRATISTAREN LANEKO BETEBEHARRAK

Kontratuak irauten duen bitartean, esleipendunak obligazioa izango du zergen, lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen alorretan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeko; Administrazioak ez du erantzukizunik izango horiek betetzen ez badira.

Edozein arrazoi edo harremanekin, etengabe edo aldi baterako, esleipendunarekin kolaboratzen duten pertsonek esleipendunarentzako soilik lan egingo dute, eta, beraz, ez dute inolako harremanik izango Lizartzako Udalarekin.

Lizartzako Udalak edozein unetan eskatu ahal izango dio kontratistari galdagarria zaion araudi osoa betetzen duela egiaztatzeko justifikazioa.

11. ART. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA BETETZERAKOAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEEN GAINEKOA

Kontratista izango da entzule kontratua betetzeko beharrezkoak diren operazioen ondorioz eragindako kalte-galeren aurrean, Sektore Publikoko Kontratuen Legean xedatutakoaren arabera.

Ondorioz, Lizartzako Udalak ez du batere erantzukizunik izango erakunde esleipendunaren ordezkarien, edozein titulugatik esleipendunarekin kolaboratzen duten pertsonen edo harentzako lana egiten dutenen ekintza edo omisioengatik.

12. ART.- KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio-organoak kontratua aldatzeko eskubidea dauka, beti ere legearen mugen barruan eta legez emandako eskakizunak eta ondorioak beteta.

13. ART.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Kontratua suntsiaraziko da agiri honetan adierazitako kasuetan eta Sektore Publikoko Kontratuen Legean finkatutako kasuetan.

Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik ezingo balitz formalizatu kontratua adierazitako epearen barruan, suntsiarazi egingo litzateke; kasu horretan, bermea galduko luke kontratistak eta bere kontura izango litzateke sortutako kalte-galerengatiko kalte-ordaina. Bestalde, kontratista horren hurrengo lizitatzaileari edo lizitatzaileei eslei dakieke kontratua -beren eskaintzen araberako ordenan-, esleipendun berriaren adostasunaz.

14. ART.- LIZITAZIO-PROZEDURA, ESLEIPENA EGITEKO MODUA ETA ESPEDIENTEAREN TRAMITAZIOA

Kontratu hau prozedura ireki eta tramitazio arrunt bidez esleituko da.

Nolanahi ere, Lizartzako Udalak onuragarriena dela irizten dion eskaintzari esleituko dio kontratua; horretarako, kontuan hartuko ditu Agiri honetan jasotako alderdi guztiak.

15. ART.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Aurkeztutako proposamenak Kontratazio Mahaiak, ondoren adierazten diren irizpide objektiboak aplikatuz baloratuko ditu.

Udalak edozein momentutan eska dezake betetzen direla egiaztatzea indarrean dagoen legediak adierazitako agiriak aurkeztuz eta beranduenera ere esleipenduna suertatzen denak kontratua sinatzerako aurkeztu beharko ditu.

Hauek dira esleitzeko erabiliko diren irizpideak eta puntuak:

Lizartzan erroldatua egotea	Gehienez, 2 Puntu
Zerbitzua hobetzeko bestelako eskaintzak (jarduerak antolatzea, herria ezagutaraztea, eskainiko diren zerbitzu gastronomikoak; asteburuko menuak, plater konbinatuak eta bokadiloen eskaintza, eguneko menua …)	Gehienez, 10 Puntu
Esperientzia edo ikasketak: - Sukaldaritza ikasketak: Gehienez 5 - Sukaldaritza esperientzia: Gehienez 3	Gehienez, 8 Puntu
Lizartzan bizi diren pertsonak kontratatzeko konpromisoa	Gehienez, 5 Puntu
Jatetxean bertako produktuak eta produktu jasangarrien erabilera	Gehienez, 3 Puntu
Ostatua urte osoan zehar zabalik edukitzea	Gehienez, 2 Puntu
Elkarrizketa Pertsonala. 17. puntuan aipatutako Memoria alderatu eta baloratuko da	Gehienez, 20 Puntu
GUZTIRA	50 Puntu gehienez

Esleipenduna izateko gutxienez 25 puntu lortu beharko dira irizpide hauetan. Elkarrizketan gutxienez 10 puntu eskuratu beharko dira.

16. ART.- KONTRATATZEKO AHALMENA

Proposamenak aurkez ditzakete jarduteko gaitasun osoa duten, kontratatzeko debekurik ez duten, zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dauden eta beren kaudimen ekonomikoea, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiatatzen duten pertsona naturalek edo juridikoek. Aitortu beharko da ahalmen hauek betetzen direla eta Udalak edozein momentutan eska dezake betetzen direla egiaztatzea indarrean dagoen legediak adierazitako agiriak aurkeztuz.

17. ART.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea eta berari lotutako dokumentazio teknikoa aztertzeko aukera egongo da Lizartzako Udalaren bulegoetan astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara eta www.lizartza.eus webgunean, lizitazioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera, proposamenak aurkezteko epea amaitzen den arte.

Proposamenak leku eta ordutegi berean aurkeztu ahal izango dira udal-bulegoan goran aipatutako egun eta ordutegian, aipatutako iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita HAMAR (10) EGUN NATURALEKO epearen barruan.

Lizitatzaileek aurkeztu behar dituzte; horietako bakoitzean jarri beharko du honako idazkuna:

Gutun-azalean ondorengo idazkuna jarri behar da **TABERNA ETA JATETXEA USTIATZEKO, KUDEATZEKO ETA MANTENTZEKO PROPOSAMENA, LIZARTZAKO OSTATUAN**, baita pertsona edo enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta ze izaerarekin aurkezten den; gutun-azala sinatuta egon behar du.

Eta ondorengo agiriak jaso behar ditu:

a) Lizitatzailearen Nortasun Agiri Nazionala, bere izenean jarduten badu. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten ordezkari gisa jarduten badu, notario-ahalordea.

b) Lizitatzailea pertsona juridikoa denean, eraketa edo aldaketa-eskritura eta identifikazio fiskaleko agiria.

c) I. eranskineko betekizun eta konpromiso agiria beteta eta sinatuta (Agiri honen 16. klausulan adierazitako AHALMENAK betetzen dituela egiaztatuz eta konpromezua hartuz Udalak eskatuko balio ziurtagiriak eta agiriak aurkeztuko dituela).

d) JEZen (Jarduera ekonomikoen gaineko zerga) altan dagoelaren agiria (kontratu hau sinatzeko behar de epigrafean) eta ez badago altan, konpromezua esleipena jakinarazi eta hurrengo hamar eguneko epearen barruan formalizatuko duela bere alta.

e) Prozedura honetako harremanetarako pertsona, helbide elektronikoa eta telefonoa.

f) Eranskina beteta eta sinatuta.

g) Lan Memoria, gutxienez II eranskina edota 15. klausulan adierazitako esleitzeko irizpideak garatuz eta hala bada beste proposamen batzuk azalduz.

18. ART.- KONTRATAZIO MAHAIA

Ondoren adierazten den bezala osatuko da Kontratazio Mahaia, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritakoaren arabera:

LEHENDAKARIA: Lizartzako Udaleko alkatea edo berak izendatutako ordezkoa.

MAHAIKIDEAK:

- Lizartzako Udaleko 2 zinegotzi.
- Mahaikide eta Idazkari funtziotan: Udaleko Idazkaria.

Mahaia balio osoz eratuta geratuko da Lehendakari, beste bi ordezkari eta Idazkaria bertan baldin badaude. Berdinketa kasuetan Lehendakariaren kalitate botoa erabiliko da.

19. ART.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Kontratazio-organoak ondoren adierazten diren eskumenak dauzka, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera:

a) Kontratua interpretatzea.

b) Kontratua betetzearen inguruko zalantzak ebaztea.

c) Kontratua aldatzea, interes publikoko arrazoiengatik.

d) Kontratua azkentzeko erabakia hartzea eta ondoreak zehaztea.

Kontratistari entzun egin beharko zaio eta horretarako azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legean aurreikusitako izapideak egin beharko dira.

20. ART.- AGIRIAK KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Behin proposamenak aurkezteko epea igaro ondoren, garaiz eta behar bezala jasotako dokumentazioa kalifikatzen hasiko da Mahaia eta, akats materialik aurkituko balu, hiru egun balioduneko epea emango lioke lizitatzaileari akatsok zuzentzeko.

21. ART.- ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratatzio-organoak honako errekerimendua egingo dio eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileari: errekerimendua jasotzen duen hurrengo egunetik hasita bost egun baliodunen epearen barruan, aurkez dezala zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izatea justifikatzen duen dokumentazioa.

Jakinarazpena jaso eta ondorengo bost egunetan esleipenean aurkeztu direnek beharrezko informazio guztia eska diezaioke Udal Organoari bidezko ikusten duten errekurtsoa jarri ahal dezaten.

Jakinarazpenean esleipena formalizatzeko epea edo kontratua sinatzeko eguna adieraziko da.

22. ART.- BEHIN BETIKO BERMEA

Esleipendunak MILA ETA BOSTEHUN EURO (1.500 €)-ko bermea jarri beharko du.

Berme hori Lizartzako Udalak zehaztutako kontu korrontean sarrera eginez ordainduko da.

Bermea ez da itzuliko edo ezereztuko, kontratuaren epea igaro eta kontratua behar bezala betetzen den arte.

Berme horren bitartez erantzungo zaie arazoaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legean jasotako kontzeptuei.

23. ART.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

Esleipenaren jakinerazpena egiten denetik hamabost egun balioduneko epearen barruan formalizatuko da kontratua administrazio-agirian; agiri hori nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko.

Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, ezingo balitz kontratua adierazitako epearen barruan formalizatu, Administrazioak erabaki lezake kontratua bertan beher uztea eta eratutako bermea bahitzea.

24. ART.- ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

24.1.- Lizartzako Udalak eta esleipendunak beren gain hartu beharrekoak dira: kontratuaren xedeak, Agiri honen, eta indarrean dagoen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen eta hori arautzen duten xedapen osagarriak.

24.2.- Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zerga. Esleipenduna ez badago Lizartzako Udalean Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda, esleipena jakinarazi eta hurrengo hamar eguneko epearen barruan formalizatu beharko du bere alta.

24.3.- Zerga-betebeharrak. Zerbitzua ematearen ondorioz galdagarriak zaizkion zerga-betebehar guztiak bete beharko dituesleipendunak.

24.4.- Gizarte Segurantza. Esleipendunak langile autonomo gisa alta eman beharko du Gizarte Segurantzan, instalazioak ireki aurretik; horrela, Udalak ez du izango esleipen honetatik erator daitekeen batere erantzukizunik.

Zorrotz bete beharko du Gizarte Segurantzaren lan alorrean indarrean dagoen araudia, eta lan-istripuen kontingentziak eta gaixotasun profesionalak estali beharko ditu, dagokion mutualitatearen bitartez.

24.5.- Erantzukizun zibileko asegura. Esleipendunak erantzukizun zibileko aseguruaren poliza aurkeztu behar du egoki irizten dion Aseguru Konpainiarekin sinatutakoa, 600.000 €-ko erantzukizun zibila duena, bai eta kontzeptu horregatik ordaindutako primen ordainagirien kopiak ere. Kopia horiek kontratua sinatzean eta urte bakoitzaren hasieran aurkeztu beharko dira. Lizartzako Udalak, jabe den

aldetik, lokala, instalazioak eta altzariak aseguratuko ditu egokiak diren kopuruetan.

24.6.- Azpikontratatzeko debekua. Debekatuta dago edozein azpi-kontratazio egitea edo esleipenduna ordeztea, baldin eta Kontratazio-organoak ez badu horretarako berariazko baimenik ematen.

24.7.- Oinarriak eta kontratua egikaritzea. Kontratuaren xede diren prestazioak egikarituko dira Agiri honetan jasotako klausulak beteta, eta Kontratazio-organoak eman ditzakeen jarraibideen arabera.

24.8.- Arriskuak. Kontratuaren xede diren prestazioen arriskuak esleipendunaren kontura izango dira, eta ez du eskubiderik izango kalte-ordainik jasotzeko galerengatik, natxurengatik edo kalteengatik.

24.9.- Eskritura publikoa. Esleipendunak eskatuko balu kontratua eskritura publikoan formalizatzea, bere kontura izango dira horren ondoriozko gastuak.

24.10.- Langileak kontratatzea. Halaber, esleipendunaren ardura izango da bere eginkizunetan laguntzeko egoki irizten dizkion langileak kontratatzea, bai eta haiei ordainsaria ordaintzea, Gizarte Segurantzarako kotizazioa zein langile horien lanaren ondorioz sortzen diren era guztietako gastuei, zergei eta betebeharrei aurre egitea eta gaur egun dauden edo etorkizunean sor daitezkeen zerga, tasa eta arielak ordaintzea ere. Behar bezala egiaztatu beharko du Udalaren aurrean alderdi horiek guztiak betetzen dituela, eta, zehazki, kontratatzen dituen langileen Gizarte Segurantzarako kotizazioaren eskakizuna betetzen duela.

24.11.- Establezimenduko gastu guztiak esleipendunak ordainduko ditu; argindarra, telefonoa, ura, zaborrak…

24.12.- Segurtasun Alarma: Udalaren ardura izango da instalakuntza eta mantenua; eta Esleipendunaren ardura izango da berau aktibatuta mantentzea.

24.13.- Halaber Esleipendunak ordaindu beharko ditu eraikinaren mantentze-lanen, dagoen ekipamenduaren mantentze-lanen, konpontze-lanen eta/edo ordezteen ondoriozko gastu arruntak zein eraikinak dituen ondasun suntsikorrenak. Eraikinaren mantentzari eragiten dioten kasu erezietan (aldizkakoak ez direnean), aztertu egingo da gastu horiei aurre egiteko Udalak bere ekarpena egiteko aukera.

24.14.- Esleipendunak ezingo du obrarik egin Lizartzak oUdalaren baimen idatzirik gabe.

25. ART.- ONDASUNAK ETA INSTALAZIOAK KONTRATISTAREN ESKU JARTZEA

Kontratua formalizatu ondorengo hamabost egun naturalen epearen barruan jarriko ditu Udalak kontratistaren esku zerbitzuari atxikitako instalazioak eta elementuak. Agiri batean inbentarioa egingo da eta emate horri dagokion akta jasoko da, eta esleipendunak eta kontratuaren arduradunak sinatu beharko dute. Ondasun horiek Udalaren eskura pasatuko dira kontratua amaitzen denean, kontratua sinatzerakoan utzitako moduan eta kopuruan. Horrela ez balira itzultzen fidantza erabiliko da, txukunketak, konponketak edota birjarpenak egiteko. Nahikoa ez balitz erreklamazioa dagokion bidetik gauzatuko da.

Halaber, esleipendunak ustiapenaren esku jartzen dituen ondasunen entregaren akta ere jasoko da; ondasun horiek Udalaren jabetzakoak izatera ez dira pasako eta pasatuko balira esleipendunak hala nahi duelako, indemnizazio edo ordainik gabe pasako dira.

26. ART.- ZEHAPENAK ESLEIPENDUNARI

Kontratuan xedatutakoaren urraketak arintzat, larritzat eta oso larritzat sailka daitezke, zerbitzuak gauzatzerakoan esleipendunak egiten dituen arau-hausteen ondorioetarako.

A) Oso larriak:

- Bi ez-betetze larri eginez gero.

- Zerbitzua ez ematea edo ezarritako ordutegia ez betetzea hilabete bereko bost egunetan zehar (jarraian edo ez) edo zazpi egunetan hiru hilabeteko aldiaren barruan, baldin eta horretarako justifikaziorik ez badago eta Udalaren baimenik ez badauka.

- Kontratuaren xede diren ondasunen gaineko kalteak eragitea, baldin eta kontratistak horretarako intentzionalitatea izan badu eta zabarkeriaz jokatu badu.

- Zerbitzuaren erabiltzaileei eraso egitea edo haiekiko errespetua larriki galtzea.

- Zerbitzuarekiko zabarkeria larria.

B) Larriak:

- Esleipena egiteko erabakigarriak izan diren konpromisoak ez betetzea.

- Inolako justifikaziorik gabe aldatzea klausulen agiri honetan zehaztutako zerbitzuak.

- Instalazioei baimendu gabeko erabilerak ematea.

- Baimendu gabeko obrak edo aldaketak egitea.

- Kontratatutako zerbitzua, osorik edo zati batean, lagatzea, azpi-errentan ematea edo eskualdatzea, edozein modu edo tituluren baitan.

- Kontratuko funtsezko betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein arau-hauste.

- Eraikinaren erabilerak aldatzeari edo hobetzeari buruzko Udalaren aginduak ez betetzea, Administrazio jarduleak beharrezkotzat jotzen dituenean.

- Agiri honetan definitutako edozein zerbitzu ematean aldaketak egitea justifikatutako arrazoirik gabe.

- Zerbitzua ustiatzen hasteko agiri honetan ezarritako epea ez betetzea.

- Langileekiko lan edo gizarte alorreko betebeharrak ez betetzea.

- Urtebeteko aldiaren barruan lau ez-betetze arin egitea.

- Zerbitzua ez ematea edo ezarritako ordutegia ez betetzea hilabete bereko bi egunetan zehar (jarraian edo ez) edo lau egunetan hiru hilabeteko aldiaren barruan, baldin eta horretarako justifikaziorik ez badago eta Udalaren baimenik ez badauka.

- Udalak eskatutako zerbitzuei eta kolaboratzeari uko egitea, eta dagokion lehentasunik ez ematea.

C) Arinak:

- Ez-betetze arintzat joko dira agiri honetan ezarritako betebeharren eta aplikagarria den gainerako araudian larritzat jotzen ez diren gainerako ez-betetze guztiak.

Udalak baloratuko du aurreko paragrafoetan jasotzen ez den beste edozein faltaren larritasuna.

Zehapenak:

- Arau-hauste arinetan, beti, ohartarazpena egingo da eta 150 € arteko isuna ere arri ahal izango da.

- Arau-hauste larrietan 150 €-tik 601 €-ra arteko isuna jarri ahal izango da.

- Arau-hauste oso larrietan 601 €-tik 1.503 €-ra arteko isuna jarriko da eta kontratua amaitutzat ematea ere gertatu ahal izango da.

Esleipendunak zerbitzu publikoa zuzen ematea arriskuan jarriko lukeen arau-hauste larria egingo balu, Udalak ustiapenaren bahiketa agindu ahal izango du.

Hiru ohartarazpen urte betean pilatzeak kontratua amaitutzat ematea ekarri ahal izango du.

Era berean, bi arau-hauste larri edo bat oso larria egiteak kontratua amaitutzat ematea ekarriko du.

Arau-hauste larri edo oso larriak behin eta berriro egiteak kontratua amaitutzat ematea ekarriko du.

Edonola ere, aipatu diren egoera horietan ez da kalte-ordainik jasoko Lizartzako Udalarengandik.

Prozedura

Zigorrak jartzeko, dagokion aurkaritza espedientea abiarazi beharko da, eta aukera emango zaio interesdunari.

Alkateak izango du zigorrak jartzeko ahalmena. Dena den Udalbatzari delega diezaioke erabakia.

Gauza bat da zigorra jartzea, eta beste bat zigorra eragin duten gertaerek kontratuan izan ditzaketen ondorioak eta emakidunak kalte-galerak ordaintzeko izan dezakeen betebeharra.

Arau hauste larriak edo oso larriak behin eta berriz egiteak kontratua suntsiaraziko du, eta ezgaitzat hartuko da emakiduna.

Edonola ere, aipatu diren egoera horietan ez da aklte-ordainik jasoko Lizartzako Udalarengandik.

27. ART.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Kontratua suntsiaraziko da Agiri honetan adierazten diren kasuetan, eta azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legean finkatzen direnetan; eta Kontratazio organoari dagokio erabaki hartzea, ofizioz edo kontratistak hala eskatuta.

Kontratistaren erruz suntsiarazte denean kontratua, behin betiko bermea bahituko da; gainera, kontratistak kalte-ordaina ordainduko dio Administrazioari sortutako kalte-galerengatik, bermeaz gaindiko kopuruan.

28. ART.- ZERBITZUA, ONDASUNAK, OBRAK ETA INSTALAZIOAK UDALAREN ESKUETARA ITZULTZEA

Kontratua amaitzen denean, Lizartzako Udalari itzuliko zaizkio -jabari osoan-, kargarik eta grabanenik gabe, zerbitzuari atxikitako eta inbentarioan jasotako Udalaren jabetzako obra, instalazio eta ondasun guztiak; horiek guztiak funtzionamendurako eta kontserbazioko egoera onean itzuli behar dira. Itzuler ahori islatuta geratuko da jasotzeko akta formalean; akta hori izenpetu behar dute esleipendunak eta kontratuaren arduraduna den Zinegotziak, zerbitzua amaitu ondorengo hamabost egun naturaleko epearen barruan, eta Udal Batzarrari akta horren berri eman beharko zaio.

Betebehar hori betetzen dela bermatzeko, kontratua amaitu baino sei hilabete lehenago, Udalak izendatutako kontratuaren arduradunak ondasunen eta instalazioen kontserbazio- eta mantentze-egoera aztertuko du eta kontratistari jakinaraziko dio ze konponketa egin behar dituen aurreikusitako baldintzetan mantentzeko, Udalari baldintza onetan itzultzeko helburuz.

Jarduketaren bat egin beharra dagoela ebatzi eta kontratistak ez badu hori emandako epearen barruan betetzen, Udalak berak egikarituko du beharrezkoa dena kontratuaren behin betiko bermearen kontura; horrez gain, kontratistaren ez betetze

larriagatiko ebazpena ere eman liteke. Halaber, Udalak zerbitzua bahitzeko erabakia har lezake ta zerbitzua ematearen ardura aldi baterako edo, are, kontratua amaitu arte bere gain hartu; horretarako, kontratistaren langile eta material berberak erabil litzake. Horrez gain, baina, kalte-ordaina ere ezer liezaioke kontratistari, bere jokaerak Udalari sortu ahal izan dizkion kalte-galerengatik.

I. ERANSKINA

Izen-abizenak:	
Helbidea:	
N.A.N.:	(honekin batera doa kopia)
Norbere izenean, edo zein enpresaren izenean:	
Enpresaren IFK:	

ADIERAZTEN DU:

Ezagutzen duela **LIZARTZAKO OSTATUA USTIATZEKO, KUDEATZEKO ETA MANTENTZEKO ADMINISTRAZIO-KONTRATU BEREZIA ARAUTUKO DUTEN ADMINISTRAZIO-KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA EDO PLEGUA-**

Eta era berean, ZINPEAN AITORTZEN DUT:

Pleguko 16. puntuan eskatzen diren kontratatzeko ahalmenak betetzen ditudala, hau da, jarduteko gaitasun osoa dudala, kontratatzeko debekurik ez dudala, zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean nagoela eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala dudala esleipen honetan aurkezteko.

Halaber aitortzen dut ahalmen hauek betetzen direla egiaztatzeko indarrean dagoen legediak adierazitako agiriak aurkezteko konpromezua hartzen dudala jakiniz Udalak edozein momentutan eska diezadakelta eta beranduenera ere esleipenduna banintz kontratua sinatzerako aurkeztuko ditudala.

Amaitzeko hitza ematen du kontratatua izaten banaiz, bereziki 10. puntuan agertzen diren betebeharrak, Pleguko gainontzekoak, neronek Memorian agertutakoak (Udalak onartuta) eta indarrean dagoen legedian agertzen diren guztiak betetzeko konpromezua hartzen dudala kontratuak dirauen denbora guztian.

(Data eta eskaintza-egilearen sinadura)

LAUGARRENA.- <u>TOLOSALDEA GARATZEN S.A., LIZARTZAKO UDALAREN BALIABIDE PROPIO IZENDATZEA, HALA IZENDATU DUTEN TOLOSALDEKO ESKUALDEKO BESTE UDALEKIN BATERA</u>

Tolosaldea Garatzen S.A. Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil udalerrien Eskualdeko Garapenerako Elkartea da. 1994. urtean sortu zen eskualdearen garapen sozio-ekonomikoa sustatzeko eta programa desberdinetan lankidetzan dihardu garapen ekonomiko eta sozialarekin zerikusia duten erakundeekin, hala nola Eusko Jaurlaritzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuarekin (SPRI) eta SPRILUR bere filialarekin, LANBIDErekin, Estatuko Ministerio desberdinekin eta Europako Gizarte Funtsarekin.

Tolosaldea Garatzen S.A. Eskualdearen Garapenerako Elkartea sozietate anonimoa da, kapital publikoa du eta ez du irabazi-asmorik. Administrazio Kontseiluan eta Batzar Orokorrean, Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkilgo ordezkari politikoak daude.

Tolosaldea Garatzen S.A.k txostena aurkeztu die hogeitazortzi udalei zera esanez, Sektore Publikoa arautzen duen 9/2017 Lege berriak areagotu egin dituela aurreko legetik ere zetorren “Baliabide propioei” eskatzen zaizkien betebeharrak. Zentzu horretan adierazten du Tolosaldea Garatzen S.A.ren estatutuetan ez zela agertzen izaera hori eta, Baliabide propio izateko baldintzak aztertu ondoren hauek betetzen direla. Beraz, udalek Tolosaldea Garatzen S.A.ren esku zenbait lan eta egitasmo uzten jarraitzeko, kontratazio esparrutik aldenduaz, Baliabide propio izendatu eta estatutuetan horrela jaso beharko dela azpimarratzen da.

Aurkezturiko txostenean, Baliabide propioari legez eskatzen zaizkion baldintzak aztertzen dira:

- Giza baliabideak eta bitarteko materialak izatea.

- Bere jardunaren % 80a sortzaile diren hogeitazortzi udalentzako egindako lanak izatea.

- Erakundearen gaineko kontrola partaide diren botere adjudikatzaile horiek izatea, kasu honetan, 28 udalek, eta udalen ordezkari bat erakundearen erabaki organoetan egotea.

- Udalek bultzaturiko lizitazioetan ez duela parte hartuko baldintzatzen da.

- Udalen mandatuen araubide juridikoa zehaztea.

- Esan den bezala, erakundearen Estatutuetan jasotzea.

Baldintzak bete izanaren agiriak aurkeztu ditu Tolosaldea Garatzen S.A.k. Horien artean 2019, 2020 eta 2021eko ekitaldiei buruzko azterketa ekonomikoan argi agertzen da, 9/2017 Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen Legearen 32.4 b) artikuluan eskaturikoa, hau da, Tolosaldea Garatzen S.A.ren jardunaren % 80 baino gehiago 28 udalek bere esku utzitako egitasmoen egikaritzan ematen dela. Bestalde, espedientean ere aurkitzen da Tolosaldea Garatzen S.A.k burututako txostena non, besteak beste, 28 udalek egin ahal dizkioten enkarguak aurrera eramateko eskura dituen giza baliabideak eta bitarteko materialak zehazten dituen.

Ondorioz, araudi aplikagarriak xedatutakoa kontuan harturik eta Tolosaldea Garatzen S.A.k aurkezturiko dokumentazioa aztertu ondoren Udal Idazkari Nagusiak aldeko txostena egin du Tolosaldea Garatzen S.A. Lizartzako udalaren Baliabide propio izendatzeko, izendapen erabakiarekin bat datozen eskualdeko beste udalekin batera.

Udal Kontuhartzaileak gaiari buruzko aldeko txostena egin du.

2022eko maiatzaren 20an, batzordeak gai honen aldeko irizpena eman zuen.

Udalbatzak, aho batez

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 9/2017 Legearen 32. Artikuluan ezarritako baldintzak betetze aldera, Tolosaldea Garatzen S.A. Lizartzako

udalaren Baliabide propio izendatzea, izendapen erabakiarekin bat datozen eskualdeko beste udalekin batera.

BIGARRENA: Udalak egingo dizkion mandatuen araubidea erakundearen xede diren jardueretara mugatuko da.

HIRUGARRENA: Izendapen hau, gainerako udalek egingo dutenarekin batera, Tolosaldea Garatzen S.A.ren estatutuetan jaso dadin onartzea. Estatutuek honako edukia jaso beharko dute:

A) Baliabide propio izaera eskualdeko zein udaletan ematen den.

B) Mandatuen araubide juridikoa.

C) Erakundeak ezin izango duela udalaren lizitazio publikoetan parte hartu, baldin eta ez bada hutsak deklaratzen direnean.

D) Gainerako baldintzak: 28 udalen ordezkaritza aginte-organoetan egongo dela, bere jardunaren % 80 udaletatik jasotako mandatuak izango direla eta giza-baliabide propioak eta bitarteko materialak izan beharko dituela.

LAUGARRENA: Izendapen hau kontratazio-profilean argitaratuko da.

BOSGARRENA: Erabaki honen berri ematea eskualdeko gainerako udalei, Tolosaldea Garatzen, S.A.ri eta udaleko sail eta azpisailei.

BOSGARRENA.- <u>TOLOSALDEA KOMUNIKAZIOA. HITZARMENA</u>

TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA S.M.k, 2022 urterako Lankidetza Hitzarmena aurkeztu du, TKT-k eta Udalak, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio lanak bideratzeko.

Horretarako, TKT, alde batetik bigarren klausulan aipatzen diren ekoizpen ildoak garatu eta hobetzen ahalegintzeko konpromisoa hartzen du, eta aipatutak ildoak bideratzeko, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua ere baden heinean, hirugarren klausulan agertzen diren konpromisoak hartuko lituzke.

Udalak bere aldetik, proiektua indartu eta bere bideragarritasuna bermatzeko ekimen lerroak garatzeko konpormisoa hartuko luke laugarren klausulan arabera.

Ekimen lerroak, hurrengoak dira:

a) Diru ekarpen zuzena. Proiektuaren luzerako bideragarritasuna eta egonkortasun ekonomikoa bermatzeko, hitzarmen hau lau urtekoa (2022-2025) izango da. Urtean urteko errolda eguneratuaren arabera biztanleko 5,00 € emango dizkio, 2022 urtean, Udalak TKTeri. Erabaki hau urtez urte berretsi beharko du Udalak diru-kopuru zehatza adierazten duen berariazko ebazpena bidez, hartzaileak aurkeztutako aurreko urteko zuriketa dokumentuak (hitzarmenaren 6. puntua) eta dagokion urteko egitasmoa aztertu eta gero.

b) Publizitatea. Erreferentzialtasuna irabazteko, publizitatea egitea behartuak dauden iragarki ofizial eta eskelak Tolosaldeko Atarian jartzeko konpromisoa hartzen du Udalak tarifatik %50eko deskontuarekin. Gainerako publizitatea, urteko fakturazioaren arabera negoziatuko dute bi alderdiek; hala balitz, urtean-urtean adostutako plangintza komertzialean islatu litzateke.

c) Beste euskarriak. Ohiko ekoizpenetik at, Udalaren eta TKT-ren artean osatuko den lan-taldeak, adostutako proiektua sustatzeko diru ekarpen bereziak egin ahal izango ditu udalak.

d) Sozializazio eta banaketa. Herritarren eta bertako indar eragileen borondatea eta lankidetza erakartzeko Udal zerbitzuen kooperazioa izango du TKT-k

e) Informazioaren kudeaketa. Udalak berak edo herrian sortzen den informazio jarioa sistematikoki trukatzeko neurriak hartuko dituzte Udalak eta TKT.k

Ekarpenari buruz, segiarren klausulak honela dio:

“Seigarrena.- Aipatutako diru ekarpen zuzena (4.ª puntua) honela egingo da: hitzarmenean adostutako diru-ekarpena osoa dagokion urteko egitasmoa eta aurrekontua aurkeztu eta hilabeteko epean jasoko du TKT-k. Urte amaieran, jardunaren oroitidatzia eta Udalaren diruekarpena osoa zuritzeko fakturak edota berauen fotokopia konpultsatuak eta zerga zein gizarte segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.”

Diru ekarpenari buruz

Hitzarmenaren xedea, eta alde biek hartutako konpromisoak aztertuz, argi dago, Lizartzako udalak, diru laguntza bat ematen dioa TKT-ri.

Zentzu horretan, Hitzarmen proposameneko VI aurrekarian aipatzen diren, Eusko Jaurlaritzak ohezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak “2018-2021 epealdian euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko” diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (Hedabideak deialdia), onartzen duen 2016ko uztailaren 20ko agindua, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak programen kontura euskararen erabilera sozialaren esparruan diru laguntzak oinarri arautzaileak, diru laguntzak dira.

Hitzarmenak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Apirilaren 7ko 2/2016 Legearen, 7.5 artikuluak xedatutakoa gainditzen du.

Artikulu horrek honeladio:

“Toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte; mankomunitate, partzuergo, elkarte eta udalerriz gaindiko bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu ahal izango dute, eta elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute, erakunde publiko edo pribatuekin”.

Urriak 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 legearen 48. artikuluak, hitzarmenen balio eta eraginkotasun baldintzei buruzkoa bere 7. atalean honela dio:

“Cuando el convenio instrumente una subvención deberá cumplir con lo previsto en la Ley 38/2003, de 27 de noviembre, General de Subvenciones y en la normativa autonómica de desarrollo que, en su caso, resulte aplicable.”

Kasu honetan, Diru-laguntzen legea izan litzateke aplikagarri, hitzarmenak diru-laguntza bat osatzen bai du.

Tolosaldeko Komunikazio Taldeak S.M. proposatutako lankidetza hitzarmenak, diru-laguntza bat gordetzen du. Beraz hitzarmena sinatu aurretik, Diru-laguntzen legeak dioena bete beharko da. Hau da, diru laguntza zuzena emateko baldintzak betetzen diren ikusi eta ala bada zentzu horretan izapidetu.

Guzti hori kontutan izanik, eta Diru-laguntzen legeak dioena betetzen denez, 2022 urterako, 3.145,00 €-tako diru-laguntza zuzena ematea erabaki da.

BIGARRENA. Erabaki hau hitzarmenaren testuarekin batera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen

Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 8.2. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

HIRUGARRENA. Alkateak, udalbatza honetako presidente den aldetik eta udal honen izenean, aipatutako lankidetzarako hitzarmena eta hori gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko ahalmena izatea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 21.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA. Erabaki hauek Tolosaldeko Domunikazio Taldeari jakinaraztea.

SEIGARRENA.- MOZIOAK

TOLOSALDEKO PENTSIODUNAK

Tolosaldeako Pentsiodunak proposatzen duten mozioa, adinekoak eta pentsiodunak murrizketa eta digitalizazioaren ondoren banku-zerbitzutara jotzeko duten arazo larria dela eta.

1.- Abusuzko klausulak eta praktikak

Hipotekadunari hipoteka eratzean ez zegokion gastu-karguak, horiek irikitzeko gehiegizko komisiokin batera eta abar.

2.- Diru publikoa behar izan duena bankua

Ikusten diren abusuzko praktikak erabiltzeaz gain, eta hori modu orokorrean, banku-kutxa batzuk intesitate handiagoarkein, beste batzuk txikiagorekin, gordailuzainak babesteko 65.000 miloi eurokin erreskatatu behar izan dira.

Eta hori gertatu zen bitartean, 2021eko hirugarren hiruhilaekoan ekitaldia itxita, Espaniako banku osoak (A.E.B.ko datuen arabera) 11.151 m/€ irabazi zituen eta kapital etekinak % 7,2koa izan zen.

3.- Administrazio-prozesuen informatizazioa eta digitalizazioa

Banku komisio gero eta handiagoak ordaintzen ari gara eta internet bidez edozein kudeaketa egin behar izatera behartzen gaituzte eta zuzeneko aurrez aurreko arreta pixkanaka kentzea, ordutegiak murriztea, bulegoak kentzea eta langileak gutxitzea ekarri du. Herri txiki askotan, geratzen zen banketxe hura betiko itxi zuten.

4.- Nola eragiten dion horrek herritarrari, finantza-bitartekariaren den bankuaren nahitaezko erabiltzailea baita

Zalantzarik gabe, herritar guztiei eragiten die. Bankuen eta langileen bulegoak nabarmen murriztea, bai eta jendeari zerbitzua emateko ordutegiak murriztea ere. (Azkeneko notiziak diote ordutegia eta beste bi puntu onartu dituztela bankuek). Banketxe aurrean dauden ilarak lotsa sentiarazten dute.

5.- Eta hori gertatu den bitartean, bankuek bere langileekin nola jokatzen duen eta oligarkiarekin nola jokatzen duen

2021ean, EREren bidezko kaleratzeak ez dira eten (BBVA 2.725 kaleratze, CAIXA BANK 6452 kaleratze, BANCO SABADELLEk bere plantillatik 1.800 langile baino gehiago atera ondoren, urriaren 15ean, aurreakordio bat lortu zuen bere ordezkaritza sindikalarekin beste 1.380 langile ateratzeko. Abenduaren 3an, UNICAJA eta Bankuaren gehiengo sindikalaren arteko aurreakordio bat iragarri ziguten, LIBERBANKEkin bat egitearen ondoriozko enplegu-erregulazioko expediente baterako, 1.513 langileei eragingo diena.

6.- Eta lanen azpikontratazioaren eskandalua

Gainera, ikusten dugu banku handietako batek, gutxienez, jardunean dauden bere langileen lanpostuekin jokatzeaz gain, zuzeneko enplegua sortzea saihesten duela, hau da, beste enpresa batzuen bidez bankuko lan berdinak egitea bankuan bertan, bainan langile horien, Bankuko Hitzarmen barruan izan gabe, eta horrela bere lan baldintzak suntsituz.

7.- Galeren aukerak

BANKIA erreskateak 22.424 miloi euroko kostua izan zuen, eta horietatik 3.302 miloi euro bakarrik itzuli dizkio Estatuari. 2021Eko martxoaren 26an kontsumitu zen BANKIAren absortzioa eta Estadua lehenengo akzionista izanik % 61,8 partizipazioa zuen eta orain CAIXABANKen absortzioarekin % 16,11 bakarrik geratu zaio.

8.- Zer esan KUTXABANKei buruz

Orain, 2022aren hasieran, Euskal Autonomi Erkidegoko herritarroi eskatuko baligute KUTXABANK banku bat gehiago den hala ez galdetzeko, ziur aski gehienak esnago genuke, banku jardunaren arabera, beste banku bat dela. Bat etorri da

bankuaren gehiegizko klausulaz betetako banku-praktikekin, neurri batean Europako Justiziaren eskakizunak bakarrik zuzendu baititu.

9.- Banku publiko baten beharra

Beraz, pentsiodunen gehiengo handi baten ustez, sobera justifikatuta dago Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak eta Tolosaldeako Pentsiodunak Udalbatza honetan, mozio hau aurkeztea eta horren bidez adieraztea beharrezkoa dela Banku Publiko bat, zelatari lanak egingo dituena eta banku pribatuen praktiken eredu konparatiboa izango dena.

Horregaitik eskatzen da Banku PUBLIKOA bi printzipio hauen arabera:

.- Gehien duenari gehiago kobratzea, eta kudeaketaren kostua zerbitzu horretaz gehien baliatzen direnei egoztea.

.- Behar den arreta presentziala ematea, bezeroek arreta hori jaso dezaten, kontuak eta ordainagiriak kudeatzea sortzen zaizkien arazoei erantzun behar badiete.

Egindako azapenean azaldutako guztia oinarri hartuta, Udalbatza hoen Osoko Biluran honako hau onartzea eskatzen dugu:

1.- Lizartzako Udalaren Osoko Bilkurak leihatila bat irekitzeko eskatzen die Tolosaldean dauden banketxe guztiei. Leihatila horretan, herritar guztiei, eta 65 urtetik gorakoei lehentasunez, aurrez aurreko zerbitzua bermatuko zaie lanaldi osoan.

2.- Lizartzako Udalaren Osoko Bilkurak Tolosaldean dauden banketxe guztiei eskatzen die lokaletara sartzeko murrizketak dauden bitartean eta/edo pertsonen arteko urruntze-neurriak gorde behar diren bitartean; neurri horiek eta beharrezkoa den beste edozein bete behar direnean, entitatearen sukurtsal bakoitzean ahalik eta edukiera handieneko itxarongela bat gaitzea, hori materialki egingarria denean, edo bestela neurri batzuk hartzea, kalera eguraldiaren aire zabalean bezoren ilarak sortzen saihesteko.

3.- Lizartzako Udalaren Osoko Bilkurak eskatzen die Tolosaldean dauden banku-erakunde guztiei, azaroaren 24ko 19/2017 Errege Dekretoan, otsailaren 28ko ECE/228/2019 Aginduan eta martxoaren 22ko 164/2019 Errege Dekretoan xedatutakoa betez, Oinarrizko ordainketa-kontuak arautzen dituztenak-, 1.mailan, hileko komisioa ordainduta eta doakotasunezkoa 2. mailan urrakortasun-egoera

kolektiborako eta hedapenerako aukera zabala egin dezatela, et asinplifikatzea aurkeztu beharreko dokumentazio kontu horiek eskatzen duenari.

4.- Lizartzako Udalaren Osoko Bilkurak eskatzen die Tolosaldean dauden banku-erakunde guztiei: 65 urtetik gorako pertsonei, hala eskatzen badute, doako zordunketa-txartelak ematea, inolako komisiorik gabe, erabilera-mugen inolako odainketarik gabe, saldo jakinaren skakizunik gabe, erabiltzeko gutxieneko zenbatekorik gabe, edo antzeko produktoak eduki gabe.

5.- Kontuan hartuta bankuek, bere ohiko jardueran, bezeroekin bat datozen funtzio pribatuak betetzen dituztela, hala nola, pentsio-olan bat, inbertsio fondo bat harpidetzea, akzio pakete bat edukitzea eta kudeatzea, kutxa gotor bat alokatzea ..., eta bezeroak jarduera hori ez duela nahitaez egin behar. Bainan aldi berean, funtzio publikoak betetzen ditu, eta bezeroa ez da eginkizun horietan ituntzen, baizik eta, ezinbestean, bankuaren bitartekaritza onartu behar du beste aukerarik gabe, hala nola gordailugilea, bere dirua kentzea, ezinbestkeo horniduraren ordainketa, hala nola, gasa, elektrizitatea, zerga ordainketa eta tasak.

Lizartzako Udalaren Osoko Bilkurak Espaniako Bankuari eskatzen dio bankuen funtzio pribatu eta publikoak argi eta garbi bereitzeko eta azken horien doakotasuna edo, bestela, gutxieneko komisio bat ezartzeko.

6.- BANKA PUBLIKOA osa dezatela eskatzen die Lizartzako Udalaren Osoko Bilkurak Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioari (Ekonomiako eta Enpresari Laguntzeko Esatu Idazkaritza bai eta Espaniako Bankuari eta euskal instituzioei ere, Banka Pribatuarekin bateragarria izan dadin, Bankuen berezko funtzio publikoak betez eta pertsona fisikoentzako sarbidekoak izanik, honako printzipio hau bete dezaten: Saldorik handiena duenari gehiago kobratzea eta ordainagirian eta gainerako ordainbide- eta kobrantza-bideen kudeaketaren eta beste prestazio batzuen kostua kobratzen, batez ere zerbitzu hori gehienbat baliatzen duten pertsona fisiko edo juridikoei.

7.- Lizartzako Udalaren Osoko Bilkurak 1. akordiotik 4.era bitartekoak Tolosaldean dauden banketxe guztiei eta 5. eta 6. erabakietan aipatutako erakundeei helaraziko dizkie.

Tolosaldeako Pentsiodunak aurkeztutako mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

EIBE (ELKARTEEN IKERKETA ETA BERRIKUNTZARAKO EKOSITEMA) Elkartea

LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Herri, hiri eta auzo guztietan ditugu elkarteak. XX. Mendean hasi ziren sortzen behar sozialei erantzutkeo. Oso pertsona gutxi dira gurean elkarte baten parte ez direnak, eta bakanak elkarte batek antolaturiko ekintzaren batean parte hartu ez dutenak. Elkarrekin eraiki behar dugula sinesten dugu eta horregatik EIBE elkarteak Elkar+ekin gara! Ekimen herritarra bultzatu du.

Asko dira elkarteek lantzen dituzten esparruak. Kultura, euskara, kirolak, dantza, aisia, memoria, ondarea, hezkuntza, osasuna, eskubideak, feminismoa, eta abar luze bat.

Hainbat sektoretan aurki ditzakegu, futnzio ugari betetzen. Helduak, gazteak, langileak, gurasoak, gaixoak, etorkinak ....

Elkarteak eta boluntarioak gure herri eta hirietan ditugun altxor handienetakoak dira, gure behar eta kezkei erantzuten bait diete egunero. Baina elkartean eta boluntarioak ez gara momentu hoberenak bizitzen ari eta aldatzeko asmoa ELKAR+EKIN GARA! EKIMENA jarri dugu martxan eragile askoren babesarekin: Agirre Lehendakaria Center, Telesforo Monzon Fundazioa, GEZKI (Euskal Herriko Unibertsitatea), Gipuzkoako Foru Aldundia, Bilgune Feminista, Euskaltzaleen TOPAGUNEA, Labrit Patrimonio, EIBE Elkartea ...

Ekimenaren helburu orokorrak:

1.- Elkarteek eta boluntarioek gure herriaren garapenean izan duten eta duten garrantzia aitortzea. Eta ondorioz elkarteen lana balorean jartzea.

2.- Instituzio, erakunde eta agente sozioekonomikoek garrantzi hori aitortzea.

3.- Elkarteen eta berauen kide izatearen harrotasuna sustatzea.

4.- Elkarteen osasuna eta berau osatzen duten pertsonen ongizatea eta formakuntza bultzatzea, eta momentu zail edota garrantzitsuetan laguntza eskaintzea.

5.- Elkarteak elkar ezagutu dezaten sustatzea, eta praktika onak eta esperientziak partekatzea.

6.- Gizartean orokorrean, eta elkarteetan bereziki, parte-hartzea sustatze eta berau erraztea.

Beraz, eskatzen dute:

1.- EIBE Elkarteak aurkeztutako ELKAR+EKIN GARA! EKIMENAri babesa ematea.

EIBE Elkarteak aurkeztutako eskaera aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

BEDERATZIGARRENA.- <u>BESTEAK</u>

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko 20:00tan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Iñaki Azpiroz Beldarrain

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia